

Pello Mari Otaño (1857-1910)

Deia, 1983-08-14.

Kepa Enbeitarekin aipatu berriak ditugu bertsolariak utzi dizkiguten euskal sistesi ederrak, eta honen "Sei Semiak" eman genuen exenplu gisa.

Gaur Pello Mari Otaño Barrioalaren "*Zazpiak bat*" dakart.

Pello Mari, Zizurkil-eko (Billabona ondoan, Oria ertzean) "Erreka" baserrian jaio zen 1857garrengo urtarrilak 26; Sabin Arana jaio zen egunean, baina zortzi urte lehenago. Gurasoak, Joan Pedro eta Juana Bautista izan ziren, eta aitona-amonak, Pedro Mari Otaño eta Mikaela Lasa; hauek biak bertsolari ezagunak; Pello Mariren osaba zen Jose Bernardo ere bai, izen handikoa; eta gurasoak ere horretara jarriak zeudenez, "Erreka" baserrian harreman guztiak bertsoan egiten omen zituen. Bertsolariez ongi inguratua jaio zen, bada, Pello Mari.

Gaztedanik aldatu zen Zizurkiletik Donostiara gurasoekin.

Karlisten bigarren gerra galdu ondoren gure herrian sortu zen giro beltzak eragindako bertso asko utzi dizkigute bertsolariak: "Xenpelar", "Bilintx", lekuko; baita Iparragirreraren abestiak ere; eta beste euskaldun asko bezala, Pello Mari ere Ameriketara joan zen; itzuli zen, hemen ezkondu (Mari Maddalen Alberdirekin), eta senar-emazteak Amerikaratzeko ontzia Pasaian hartzera joan zirenean lagun asko zen kaiean, hoienean artean "Txirrita". Emaztea, hara heldu bezain laster hil zitzaion; Pello Mari bera, Euskal Herrirako asmotan beti baina han itzali zen. Argentinako Rosario de Santa Fe-n 1910garrengo maiatzaren 5ean, 52 urte zituela.

Ez zen bertsolaria bakarra izan, poeta eta idazle ere bai. "Artzai Mutila" opera idatzi zuen 1906ean eta urte berean estreinatu zen Buenos Aires-eko "Victoria" teatroan, Félix Ortiz y San Pelayo-ren musikarekin; ordurako argitaratu zuen Buenos Aires-en bertan bere olerki hautatuekin *Alkar* liburua, gero Donostian 1930ean birrargitaratua izan zena.

Hamar urte lehen, Sabin Arana oraindik bizi zela, argitaratu zioten *Euskal Herria* aldizkarian hasieran aipatu dugun "*Zazpiak bat*". Honerako luzetxoa denez gero, hara lehen bi bertsoak:

"Zazpi aizparen gai dan oyala / ebakirikan erditik, / alde batera iru soñeko / utzirikan, lau bestetik / guraiziekin berezi arren / bakoitza bere aldetik / ezagutzen da jantzi dirala / zazpiak oyal batetik".

"Oyaltzat hartu dezagun euskera / guraizitzat Bidasoa... / Ibai koxkor bat besterik ez da; / utsa balitz itsasoa / elkarren urbil daude ZAZPIAK / muga deitzen da "Pausoa". / Zergatik izan bear ez degu / familia bakar osoa?".